

Ezpalak

JON TORNER

Txalo konpainiak *Grönholm metodoa* antzezlan estreinatua zuen pasa den astean Donostian. Jordi Galcerán idazle katalanaren *El metodo Grönholm* obra ezagunaren euskarazko egokitzapena da. Hilaren 12an eta 13an Bilboko Arriaga antzokian eskainiko dute, 22an Elorrion eta 23an Irunen.

Gorka Salmeron argazkilari legazpiarrak *Ateak* bildumako irudiak jarri ditu



ikusgai Iruñeko Contraluz galerian. 1990-91 urteetan atera zituen argazki horiek Salmeronek, eta gaur arte behin baino ez ditu erakutsi, Donostian. Otsailaren 29a arte ikusi ahal izango dira Iruñean.

Koro Navarrok irabazi du XXI. Jokin Zaitegi itzulpen sariketa. Doris Lessing 2007ko Literatur Nobel saridunaren *The grass is singing* lehen nobela itzuliko du Navarrok. Liburuaren izenburua *Belarra kantari* izango da eta udazkenean kaleratuko du Elkar argitaletxeak.

Beñat Sarasola idazle donostiarrek *Hitz egiteko modu bat* bloga sortu du. Aurkezpen mezuan dioten bezala, "literaturaz hitz egiteko modu bat, literatura gutxi eginez agian, agian. Musikaz eta zinemaz hitz egiteko modu bat, agian. Arteaz, agian, filosofiaz (agian). Huntaz eta, agian, hartaz. Agian literatura egiteko modu bat, literaturaz hitz egin gabe, agian". Helbidea: <http://bsarasola.wordpress.com>.


Ixaso Diez dokumentalistak *Aldaketa 16* aldizkarian:

«Estereotipo hori ere ez dut gogoko. Hori dioena [artistik gaizki ulertuak daudela] kexati bat da, gehienetan. Egia da askotan ez dutela ulertzen zuk egiten duzuna, baina normala da. Bost urte eman ditugu fakultatean, burua irekitzen eta ikasten. Heziketa luze bat izan duzu eta ezin duzu eskatu jendeak zu berehalakoan ulertzea».

Luis Amezaga idazleak *Diario de Noticias de Alavan*: «Jende askok idazten du poesia baina inork ez du irakurtzen. Poetak eurak narratibaz elikatzen dira. Poesia oso konplexua da, baina ez dakit eskaintza faltagatik ala banaketa arazoengatik den. Banatzaileak liburu-dendetara poesia eramateko

Animac: Animaziozko zinema eta fadoa, italiar gastronomia, gorputz espresioa...

Martxoaren 3tik 8ra egingo da Donostiako Artelekun Animac animaziozko zinemaren erakusketa. Bi atal izango ditu egitarauak, film laburren proiektioak batetik eta Mugimenduzko Iru-dien Laborategia zikloko tailer bereziak bestetik. Hiru tailer eskainiko dituzte. Martxoaren 3tik 7ra egingo dira horietako bi: poesia eta zinema uztartuko dituen *Hitzetik Fadora*, *Fadotik Iru-dirra* izenekoa; eta gorputzaren mugimenduetatik abiatuta genero indarkeriari buruzko film laburra osatzea xede duen *Iluna argitzen* lantegia. Tailer horietan hamabi lagunek parte hartu ahal izango dute eta izena emateko epea hilaren 22an bukatuko da. Hirugarren tailerra irekia izango da. CuCinema (www.cucinema.com) proiektuko kide diren artista italiarrek gidatuko dute, martxoaren 7an. Parte hartzaileek zeluloidean marrazkiak egingo dituzte eskuz eta bien bitartean, pasta plater bat prestatuko dute. Amaieran elkarrekin afalduko dute guztiek, eurek margotutako filma ikusten duten bitartean.



Animac-en egitarau osoa eta tailerretan izena emateko argibideak www.arteleku.net webgunean kontsulta ditzakezue.

Eremulauak.com webguneak agur esatea erabaki du

AZKEN HILABETEETAKO geldialdiaren ostean, kulturaren inguruko Eremulauak.com webguneako koordinatzaileek ataria gaurkotzen ez jarraitzea erabaki dute. *Harea poltsikoetan (eremulauak.com-en agurra)* izeneko adierazpenean eskerrak eman dizkiote 2004az geroztik izan dituzten irakurleei. Horrekin batera martxoaren 13an Bilboko Kafe Antzokian antolatu duten agur jairako gonbitea luzatu dute. Webguneak antolatutako edizio gunean partaide izan den Nun taldeak joko du festan, baita Standstill kataluniarrek ere.

konbentzitzea oso zaila da, liburuak biltokian dituen arren. Liburu-dendek eskatu ezean ez ditu ateratzen, eta interesa duen irakurlerik izan ezean, liburu-dendek ez dituzte eskatzen. Poesia amaieratik kontsumitzen da. Hori ez da narratibarekin gertatzen; hark bere burua eskaintzen du».

Karra Elejalde aktoreak ON aldizkarian: «Antzezteaz gain *Año Mariano* eta *Torapia* lanak ere zuzendu ditudan arren, ez da errentagarria eta ez da gehien gustatzen zaidana. Askoz erosoago sentitzen naiz idazten eta antzetzten, lanak zuzentzen baino. 'Karra Elejalde, aktore eta zuzendaria' esaten dutenean, nik ezetz esaten dut, aktorea bai baina zuzendaria ez».

Abarrak

LORE AGIRREZABAL

Altxor preziatuak

Erretratu. Gipuzkoa Donostia Kutxa Bilduma. Photomuseum (Zarautz, Gipuzkoa). Urtarrilaren 15etik martxoaren 16ra. Sarrera: 6 euro (ostiraletan doan)

Photomuseum, Zarauzko Argazki eta Zinema Museoa, altxor kutxa bihurtu da. *Erretratu* izeneko erakusketa ikusi besterik ez dago museoak eskuratu duen bildumaren garrantziaz jabetzeko. XIX. mendeko eta XX. mende hasierako argazki-bilduma ederra jaso du Photomuseumek Gipuzkoa Donostia Kutxaren eskutik. Delgaray familiak osatutakoa da eta milioika euroko balioa du. Guztira, berrehun argazki baino gehiagok osatzen dute bilduma osoa, baina, hasteko, horren zati batekin osatu dute lehenengo erakusketa hau.



Sarah Bernhardt-en argazki koloreztatua.

Ez da nolana hikoia.

Argazkilaritzaren historiako izenik ezagunenak biltzen ditu. Niepce de St. Victor, Nadar, Disderi, Carjat, Bertall, Pierre Petit eta Salomon bezalako argazkilaririk handiek garai haietako aktore, idazle, politikari, pentsalari eta beste hainbati ateratako erretratu originalak ikus daitezke bertan: Victor Hugo idazlea, Baudelaire poeta, Napoleon III., Jules Verne idazlea, Sarah Bernhardt aktorea...

Photomuseumeko horma zuriak ikuslea beste garai batzuetara eramango duten leiho txikiz bete dira erakusketarekin. Argazkilaritzaren lehen urratsak kolorerik gabeak, arkaikoak eta oso estatiokoak irudika ditzakegu, baina erretratu horiek ikusi besterik ez dago, garai haiek ere koloretsuak eta bizi-biziak zirela ohartzeko. Horren adibide dira koloreztatutako erretratuak, biluziak, modako argazkiak, aktore ospetsuen erretratuak...

Teknikari dagokionez, argazki zale erromantikoenen gozamenerako, prozesu desberdinak erabiliz ateratako erretratuak ikus daitezke: dagerrotipoak, beira negatiboen bidez egindakoak, heliografatuak, pelikula malguekin ateratakoak...

Museoko lehen solairuan ikus daiteke hori guztia, baina merezi du igogailua hartu edo eskailerak igo eta, goitik behera, solairuz solairu, argazkilaritzaren eta zinemaren lehen urratsak eman ziren garaietara bidaiatzea. Gure arbasoek irudiari mugimendua emateko sortu zituzten tresnak, zein baino zein bitxiagoak, jaso ditu Photomuseumek Kutxaren eskutik. Museoak 15 urteotan osatutako fondoak are gehiago aberastu du Delgaray familiaren bildumak.